

JON INSAUSTI MAISTERRENA

Donostiako Alkatea



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

Egun on,

Gaur ere, hiria dotore esnatu da. Eta norbaitek kaleak jarri ditu. Espaloiak garbitu. Gaueko argiak itzali. Kafe makinak piztu. Autobusak martxan jarri.

Eskoletan txirrinak jo du, anbulatorioko ateak ireki, egunkariak liburutegira ekarri, lantokiak, dendak... Denon artean hiria esnatu eta martxan jarri dugu.

Bizitzak jarraitzen du.

Eskerrik asko denoi, gaur ere, Donostia martxan jarri duzuen guzti-guztioi.

HARRO ETA UMIL HARTZEN DUT ALKATE MAKILA.

Harro, harrotasunez... Donostiako Alkate izatea ohore handia delako. Eta umil, Alkate izatea ardura handia delako.

Belaunaldirik prestatuena garela esaten dute. Lekukoa pasa digute eta ausartu egingo gara.

Donostiar guztion kezkak bideratzen saiatuko gara eta etorkizun berria amestuko dugu.

Horregatik nago harro eta eskertuta, aukera eman zaigulako. Eta umil, denon artean, elkarlanean egin behar dugulako.

Horregatik donostiar guztioi laguntza eskatu nahi dizuet. Izan ere, Donostia, donostiarrok egingo dugu, eta donostiarrontzat izango da.

Donostiarron Donostia.

Elkarlanean egin behar dugu, gure familian egiten dugun moduan.

Denok dugu mahai bat etxeko sukaldean.

Mahai hori oso garrantzitsua izan da neure bizitzan.

'Zer esanik ez azkeneko aste hauetan'.

Etxeko mahai horretan familia baten babesa eta indarra zer den ikasi dut.

Egun hauetan, sukaldeko mahaian eserita, amak esan dit esker onekoa izateko. Aitak, gazteekin gogoratzeko. Anaiak berriz, Donostia aurrera ateratzeko talde lana behar dela. *"Ya te puedes rodear de buena gente"*.

Eskerrik asko Ama, Aita eta Ander. Etxeko mahaia izateagatik. Beti hor egoteagatik eta Donostiar ona izatea zer den erakusteagatik.

Nire esker ona baloreetan hezi eta leihoak zabaldu dizkidaten Orixe, La Salle eta EHUKo irakasle guztiei.

Esker ona neure kuadrila eta lagunei, beti jartzen nauzue nire lekuan. Esker ona ere, iluntasunean beti piztuta zaudeten argi horiei.

Eskerrik asko Hegalak. Osasuna eta ongizate lotuta daudela erakusteagatik. Club Vasco de Campingekoei, ingurumena zaintzen eta maitatzen lagundu didazuelako.

Alde Zaharreko elkarte kuttunak. Amarako Iñaki, Morlanseko Olatz edo Altzako eta auzoetako kultura elkarteei. Eta nola ez, Kresalari, eskerrak infinito, lehen danborrada mistoa atera zenutenetik berdintasunaren alde egindako guztiagatik.

Nire esker ona, udaleko langile guztiei. Zerbitzu publikoa zer den erakusteagatik eta lehen egunetik laguntzeko prest azaltzeagatik.

Esker ona, berezia, Eneko Goia, maixu, eredu eta lagunari; Eusko Alderdi Jeltzaleari, zinegotziei eta, zuen bidez, donostiar guztiei. Gaur, zuen konfiantza eta indarra nirekin da, nire buruan eta bihotzean.

Sukaldeko mahaia izan da gure familiaren topalekua.

Hor partekatu ditugu kezkak, momentu handiak ospatu ditugu, elkarrekin eztabaidatu, barre eta negar egin dugu.

Mahai hau erreferentziazko eredua da niretzat.

Ulertzen dut sukaldeko mahaian hitz egiten dugun argitasuna donostiarrei hitz egin behar diegun berbera dela.

Esker ona, harrotasuna eta umiltasuna, ilusioa eta erantzukizuna sentitzen ditut gaur Donostiako Alkatetzaren sukaldeko mahaian.

NIRE GAIN HARTZEN DUDAN ERRONKA HAU, GURE BELAUNALDIAREN ERRONKA GISA HARTZEN DUT.

Gaur egungo Donostia ez da 2015ean ezagutu nuena.

Eskaerak eta beharrak bestelakoak dira. Erronkak, globalak. Lehentasunak aldatu egiten dira.

Izpiritua eta anbizioa mantentzen dira. Adibide bat: duela 10 urte norabidea kulturaren hiriburua izatea zen, gaur egun zientziaren eta ezagutzaren hiria izatea.

Lotunea pertsona sortzaileak, berritzaileak eta disruptiboak dira, zerbait berria eskaintzeko asmoa partekatzen dutenak.

Hau da gaztetasunaren izpiritua.

Stefan Zweigek dioen bezala, *"gazteria izpirituairen egoera bat da. Borondatearen garaipena da errutinairen gainetik"*.

Nahi dudan Donostia pertsona sortzaile eta kreatzaileena da, errutina gainditzen dutenena.

Hori da gure belaunaldiaren erronka, eta bizkor ibiliko gara.

Galdera hau egiten diot neure buruari: zer egin dezakegu elkarrekin?

Nire misioa Donostiaren zerbitzura indarrak batzea da

NIRE PROIEKTUA DA DONOSTIA BARRURANTZ, PERTSONENGANA, ERALDATZEA.

DONOSTIA DONOSTIARRONTZAT.

Aldaketa hori barnerantz bideratzeko ilusioa dut.

Lehentasunak argi ditugu: Etxebizitza, Segurtasuna, Lanbidea eta Egunerokoa.

Hauek dira etxeko sukaldeetan dauden lehentasunak eta hauek dira, bereziki, geure belaunaldiaren eskaera eta nahiak.

Bizitzeko etxeak behar ditugu. Lasai, seguru, nahi dugun eran maitatuz. Lan txukun eta duinak. Bizitzeko lan eginez, baina ez, lanerako biziz.

ETXEBIZITZA, SEGURTASUNA, ENPLEGUA ETA EGUNEROKO BIZITZA.

Hauek dira gure lehentasunak..

1. Etxebizitza gehiago.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorren tramitazioa azkartzea planteatzen dut.

Auditx Akularren etxebizitza eraikitzeke aldaketa partziala.

Bereizketei eta erabilera-aldaketei buruzko ordenantza aldatzea etxebizitza gehiago gaitzeko.

2. Segurtasuna.

Egiako Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko komisariarako lehen partida sartu dugu aurrekontuetan.

Gure eredua da: Euskal Polizia.

Ziur nago gai izango garela Hiri Itun bat lortzeko segurtasunaren lehentasunaren aurrean.

3. Kalitatezko enplegua.

Miramongo parke teknologikoa zabalduko dugu iparralderuntz, hegoalderuntz, ekialderuntz eta mendebalderuntz.

Illunbe, Galarreta, Osasun-hiria eta EITB Miramon.

Eta Gipuzkoako Parke Industrial handiena amaituko dugu Eskusaitzetan.

4. Eguneroko bizitza hobetzea.

Zerga turistikoaren baliabide guztiak donostiarren onurarako izatea proposatuko dugu.

Auzoetan inbertsioa handitzea, mantentze-lanetan eta garbiketan; berdegune eta oinezkoentzako gune berriak irekitzea.

Kulturak giza harremanak errazten ditu, bizikidetza eta komunitatea eraikitzen ditu.

Donostia Kultura da, eta Kulturak hiriburu izaten jarraituko du Donostian.

Kulturak hazi, jantzi eta elkartzen gaitu.

GARAI BERRI BATEN HASIERAN GAUDE.

Ez gara hutsetik abiatuko.

Gure aurretik askok amestu dute hiri hau eta lan asko egin. Auzoz-auzo zabaldu zuten, mundura ireki, izaera galdu gabe, nortasuna zainduz.

Donostian hazi gara, eta hiria gurekin hazi da.

Pertsonen komunitatea gara.

Hori da zaindu, babestu eta hazi nahi dudana. Donostia da bizi eta gozatu dudana Alde Zaharrean jaio nintzenetik eta Altzatik, bizi naizen auzotik.

Hemendik, gazte askok eta askok bezala, nire hirian bizitza-proiektu duin bat garatu nahi dut.

Badakizue korrika egitea gustatzen zaidala. Murakamik dio: *"Egunez egun korrika egiten dudanean, gero eta gorago jartzen dut gailurra. Aldapa igo ahala, nire burua ere gorago igotzen dut"*.

Hartu dugu txanda. Talde bat gara. Nire taldea: Olatz, Kerman, Nekane, Martin, Mariaje, Ana, Idoia. Gobernuko bazkideak: Ane, Juantxo, Iñaki, Iñigo, Carlos. Eta baita ere: Juankarlos, Garbiñe, Jabi, Izar, Itziar, Markel, Sandra, Ricardo, Borja, Vanessa, Tomás, Víctor eta Arantxa.

Udalbatzaren taldea gara. Eta 5K landu nahi ditut:

- **KOMUNITATEA.** Donostiako komunitatearen zerbitzura dagoen taldea.
- **KONPROMEZUA.** Pertsonekin eta hiriarekin.
- **KULTURA.** Hori gara eta horrek laguntzen digu hazten.
- **KIROLA.** Gorputza eta burua zaintzen digu.
- **KILOMETRO 0.** Donostia donostiarrentzat.

Amaitu baino lehen, ikuspegi honen sustatzaileari nire esker ona.

Eskerrik asko, Eneko Goia.

Eskerrik asko beti errespetua gordetzeagatik eta donostiarren alde dena emateagatik.

1887. urteko Udal Bando batek zioen:

“Nai luke Aiuntamentu onek, oraindiño bezala, segi dezatela erri ontan oitura onak; nai luke denak, batzuek besteentzat, izan dezatela errespetua eta onginaia”.

Eta berrian, nahiko nuke ere, denon partetik “errespetua eta onginaia”, Donostian eta donostiarron alde.

Bukatzeko, “motxean”:

TOPE saiatuko naiz

KONTATU NIREKIN

HAUXE NAIZ **NI**

DONOSTIAR **GUZTION** ALKATE BERRIA,

JON, ALKATEA.

Bihotz-bihotzez ESKERRI ASKO!

Donostian, 2025eko urriaren 29an.